

KANALAK

Gure aplikazioa hasieran ez da ezaguna izango, beraz gure ingurukoek besterik ez dute edukiko honen berririk. Horregatik, hainbat metodoren bidez egitea pentsatu dugu, modu batean eginez gero jende gutxiagori iritsiko zaiolako eta gure nahia ahalik eta pertsona gehienei iristea baita.

Elkartu, gure aplikazioa, gehien bat 17-25 urte bitartekoek erabiliko dutela pentsatuta dago, nahiz eta salbuespenak egon. Haatik, produktua ezagutzera emateko metodoak honetan oinarrituta daude.

Lehenik eta behin, ezagutzera emateko kanal nagusienak ikastetxeak dira. Bertakoei gure aplikazioaren berri eman eta ikasleei komentatzea eskatuko diegu. Gainera, herriko liburategietan honi buruzko informazioa jartzea eskatuko diegu. Bestalde, posterrak egitea pentsatu ditugu tabernetan eta herriko leku desberdinetan jartzeko. Azkenik, Diario Vascon ere publikatzea ideia ederra iruditu zaigunez, hori egitea pentsatu dugu.

Bezeroei dagokienez, Internet bidezko marketinga denez, erlazio estu bat edukitzea zaila da. Beraz, ahalik eta erlazio hoberena edukitzea oso garrantzitsua iruditzen zaigunez, aplikazioan emaila jartzeaz gain, telefono zenbaki bat jartzea pentsatu dugu. Modu honetara, beraien zalantzak argitzea errazagoa dela uste dugu eta baita erlazio hobe bat edukitzea ere. Horrela, bezeroak gustorago edukitzea lortuz gero, hauek beraien ingurukoei gure aplikazioa aholkatzea errazagoa da.

